

MARÍA

ETA
BIOK



MARÍA GALLARDO & MIGUEL GALLARDO





MARÍA KANARIETAN BIZI DA BERE
AMAREKIN, ETA NI BARTZELONAN, HANDIK
3 ORDURA HEGAZKINEZ. BATZUETAN,
BIOK ELKARREKIN JOATEN GARA
OPORRETAN, ASTEBETE PASATZERA
KANARIA HANDIAREN HEGOALDEAN,
ALEMANAK ETA ANTZEKO GIRIAK JOAN
OHI DIREN RESORTEN BATEN. BIDAIA
HORIETAKO BATEN KONTAKIZUNA DUZUE
HAU, NI BARTZELONARA ITZULI AURRETIK
AZKEN UDA-EGUNAK HANGO HOTEL
BATEAN EMAN BAIKENITJEN. HALAKOETAN
MARIAK ETA BIOK HITZ EGITEN DUGU,
ETA BARRE, ETA JENDEAREN ZERRENDAK
EGIN ETA ASE ARTE JAN.

MARIAK 12 URTE DITU, IRRIBARRE
ITSASKORRA, OSO UMORE BEREZIA, ETA
AUTISMOA DAUKA.


BARTZELONATIK KANARIETARA



DENBORA AURRERA DOA



28. ATEA URRUN DAGO, ETA ESKAILERADUN LEIZE-ZULO BAT DA



* CEIBA: MARÍAK KANARIETAN DUEN LEHENGUSINA KUTUN BATEN IZENA

AGINTZAILE JARTZEN
SAIATU NAIZ

MARIIIAA



EZ DUT LORTU
ORDEA

ITSUSIA DA!




ILARA LUZEA DAGO
HEGAZKINERA IGotzeko...
HORRELAKOETAN,
TRIKIMAILUREN BAT SAIATU
OHI DUT



BARKATU, ANDEREÑO, BAINA ILARAN
EGOTEKE AURRERA EGINGO DUT;
IZAN ERE, MARÍA TXOR-TXOR,
TXOR-TXOR...

SERIO PLANTA HANDIZ ESATEN DUT
HORI, MARÍA ERREZELO AURPEGIZ
BEGIRA DAGOELARIK. AZAFATEK
ONDO ERREAKZIONATU OHI DUTE.



HEGAZKINERAKO BIDEAN GARA JADA

ARAZOA AZALDU DIOT LAGUNTZAILE BURUARI

BISTAKOA DA...
MM MM



MARÍA ETA BIK
EZIN GARA
APARTE
JOAN



BEREHALA AURKITU DUTE
IRTENBIDEA



TURBULENTZIAK



PARANOIA



GURE ONDOAN, ANDRE BAT HAURDUN. GURASO BERRIENTZAKO LIBURU BAT IRAKURTZEN. EZ AHAL DIOGU ALDARTEA ZAPUZTUKO!!




MARIK EZ DITU JHALAK OSO GUSTUKO ETA KENDU NAHIAN DABIL DENBORA GUZTIAN, BAINA EZ DU ASMATZEN ETA HASERRETU EGITEN DA.



MARIK EZ DITU MEKANISMO KORAPILATSUAK GUSTUKO.




...SALBAMENDU-JAKEN AZALPENAK GOGORATZEN DITUT, INOIZ EZ DIET KASURIK EGIIIITEEN





CEIBA
ITSUSIA

DAAAA
AAA



ZE EDERRA DEN HEGAN EGITEA!

IRITSIERA


BARTZELONAN EURI HITSA ARI ZUEN, ETA PARADISU HONETARA HELDU GARA: EGUZKIA SEGURTATURIK URTEKO 365 EGUNETAN.




MARÍA POZIK DAGO HELDU GARELAKO, ETA BERE MODURA ERAKUSTEN DU.



APARTHOTEL
DORADO
BEACH




DORADO BEACH



KOLORE GORRIKO ESKUMUTURREKO BAT DUT, ETA HORREKIN NAHI DUDANA HAR DEZAKET OPORGUNE EDER HONETAN. PENTSA, ASTEAZKENERO "SUNBEACH" ARETOAN IZATEN DEN KARAOKE BIKAINEAN ERE IRUDIKATU DUT NEURE BURUA. MARIÁK BESTE ESKUMUTURREKO BAT DU, BAINA BERE BERDEA DA, ETA HORREK ESAN NAHI DU EZIN DUELA NIK BEZALA DAIKIRI BAT HARTU ARRATSALDE ERDIAN.



DORADO BEACH ALEMANIARREN ERRESERBA NATURAL BAT DA. ESKUMUTURREKOAK BABESTURIK, TURISMO GUNEKO EDOZEIN LEKUTATIK IBIL DAITEZKE, BERTAKO NATIBOEK KOSK EGINGO OTE DIETEN BELDURRIK GABE.



EMAKUME ALEMANIARREK
BIBOTEA DUTE?

NAHI DUTENA
HAR DEZAKETE

SUPERMARKETEKO LIBURU
GUZTIAK ALEMANEZ DAUDE



GROSSEN
DEUTSCHE

HAIEN HABITAT NATURALA HOTELEKO IGERILEKUA
DA, ETA HARA DOAZ EGUNERO, HUTSIK EGIN GABE,
OTARRAINXKAREN KOLORE TIPIKOA LORTZEARREN.
BUFFET LIBREAREN INGURUAN BILDUTA ERE
ANTZEMAN DAITEZKE.



BUFFETA DA EGITARAJAREN JARDUERA
GARRANTZITSUENETAKO BAT, DARDO TXAPELKETA
ETA AQUAGYM IKASTAROAREKIN BATERA.



DORADO BEACH-EKO BEZEROEK
NAHASKETA HARRIGARRIAK
PRESTATZEN DITUZTE BARRA
GAINEAN EGOTEN DIREN
ERA GUZTIETAKO EDABEEKIN,
ELKARREKIN ONDO ETORRI
EDO EZ.



LEHEN EGUNEAN **IZOKIN**-ENTSALADA
HARTU DUT: FAIRYZ NAHASITAKO
OZPIN-PEPINOEN HALAKO KUTSU
BAT DU.

MARÍA, ORDEA, POZAREN
POZEZ ARI DA JATEN BERE
"LEGATZ-ZIRIAK" (?)
PATATEKIN, MAUKA-MAUKA
IRENTSIZ.




**SUPERKON-
TZENTRAZIOA**

GRASK
GRASK

MARÍA

IRUDIAK

MARÍAK PRIMERAN PASATZEN DU, EZAGUTZEN DUEN JENDEAREN MARRAZKIAK EGITEN DIZKIODANEAN. ORAINGOAN PREST ETORRI NAIZ, ETA, KOADERNOAZ GAIN, BERE LAGUN ETA SENIDE GUZTIEN IRUDI SORTA BAT EKARRI DUT, PLASTIFIKATURIK. IZUGARRI MAITE DU JENDEA SEINALATU ETA HAIEN IZENAK ESATEA.



HORIEK DIRA MARÍAREN GELAKIDEAK KANARIETAN, ETA BERA PRINTZESA BAKARRA, MUTIL GUZTIEN ARTEAN. BERE JOLAS KUTUNENA, ETENGABE ERREPİKATZEA TALDE HORIEN LERROKADAK: IKASKIDEAK, IRAKASLEAK, IZEBASABAK, LEHENGUSU-LEHENGUSINAK ETA ABAR.

AURPEGIERAK


MARÍAK BARRE EGITEN DUENEAN, INGURUAN DENA ARGITZEN DA, HARK KUTSATURIK.



LEHEN BEGIRATUAN BADIJUDI EZER GUTXI INTERESATZEN ZAIOLA, JAKIN-MINIK APENAS DUELA, BAINA NIK USTE DUT EZ DUGULA MARÍA ULERTZEN.

EZAGUTU DUEN JENDEAREN IZENAK ERREPİKATUZ (BATZUK JADA ZENDUAK), DENA BERE TOKIAN DAGOELA BAIEZTATZEN DU, ETA MUNDUA TOKI SEGURUA DELA. MARÍAK JENDEARENGAN DUEN KONFIANTZA ITSU HORREN FALTA NABARITZEN DUT SARRITAN.

MARÍARI SO EGITEN DIOTENENGAN IKUSI NAHI EZ DITUDAN AURPEGIERAK



HALAKO AURPEGIK JARTZEN DITU JENDEAK, ESATERAKO, MARÍA JANGELAN OIHUKA HASTEN BADA URDURI DAGOELAKO EDO EZ DIODALAKO ARIN JATEN JZTEN. AURPEGI HORIEK TRISTATU EGITEN NAUTE BATZUETAN, ETA BESTE BATZUETAN AMORRATU.



BATZUETAN, HAI EI ERE ESAN NAHIKO NIEKE:

